

Salbamena Liburu Santuek - Salvation Scriptures

Efesoarrei 2:2 hori baitzen zuen jokabidea garai batean, mundu honen joerei jarraituz: munduan agintzen duten indarren buruzagiaren menpeko zineten, jende errebeldeagan ari den espirituaren menpeko.

Mateo 6:10 etorrarazi zeure erregetza; betearazi lurrean zeure nahia, zeruan betetzen den bezala.

Lukas 22:42 «Aita, nahi baduzu, urrun ezazu niregandik edari samin hau. Hala ere, egin bedi zure nahia, ez nirea».

Joan 16:7-9 halere, egia diotsuet: Hobe da zuentzat ni joatea; izan ere, joaten ez banaiz, ez zaizue etorriko Laguntzailea; joaten banaiz, ordea, bidali egingo dizuet. **8** Hura etortzean, bekatu, zuzentasun eta epaiari buruz oker dagoela erakutsiko dio munduari: **9** bekatuari buruz, niregan sinesten ez duelako;

2 Timoteori 2:10 Horregatik, dena jasaten dut Jainkoak aukeratu dituenen onerako, horiek ere guk Kristo Jesusengan dugun salbamena eta betiko aintza irits ditzaten.

Erromatarrei 15:20,21 Hauxe zen niretzat garrantzizkoena: Kristoren izena entzuna ere ez zen tokietan berri ona zabaltzea. Ez nuen nahi bestek ipinitako oinarrien gainean eraiki, **21** Liburu Santuak dioenaren arabera baizik: Haren berri ez zutenek dute ikusiko, eta inoiz hartaz entzun ez zutenek ulertuko.

Eginak 2:36,37 «Jakín beza ongi, beraz, Israel herri osoak Jaun eta Mesias egin duela Jainkoak, zuek gurutziltzatu zenuten Jesus hau». **37** Hitz hauek bihotzean zirrara egin zieten, eta Pedrori eta gainerako apostoluei galdetu zieten: –Zer egin behar dugu, anaiok?

Hebrearrei 4:2 Guri ere berri ona eman zaigu gure arbasoei bezala; baina hauei ez zien ezertarako balio izan mezua entzuteak, entzun sinetsi gabe entzun zuten eta.

Jeremias 24:7 Adimena emango diet ni Jauna naizela ezagut dezaten; nire herri izango ditut eta ni beren Jainko izango naute, bihotz osoz itzuliko baitira niregana.

Eginak 16:14 Bazen entzuleen artean Lidia izeneko emakume bat, izatez Tiatirakoa, purpurazko oihalen saleroslea; Israelen Jainkoa gurtzen zuen.

Mateo 13:14,15 «Horrela, Isaias profetak esana betetzen da horiengan: «Entzungo duzue, bai, baina ulertu ez; ikusiko duzue, bai, baina ohartu ez. **15** Izan ere, herri honek gogortu egin ditu buru-bihotzak, gortu

belarriak, itsutu begiak. Ez bezate beren begiez ikus, ez belarriez entzun, ezta buruaz ulertu ere, horrela niregana bihur ez daitezen eta salba ez ditzadan.

Isaias 6:9,10 Hark esan zidan: «Zoaz eta esaiozu herri honi: “Entzungo duzue, bai, baina ulertu ez; ikusiko duzue, bai, baina ohartu ez”. 10 Gogortu buru-bihotzak herri honi, gortu belarriak, itsutu begiak. Ez bezate beren begiez ikus, ez belarriez entzun, ezta buruaz ulertu ere, horrela niregana bihur ez daitezen eta salba ez ditzadan».

Markos 4:11,12 Eta hark esan zien: –Zuei eman zaizue Jainkoaren erregetzaren misterioa ezagutzea; kanpokoei, ordea, dena parabola bidez ematen zaie. 12 Zeren eta, Liburu Santuak dioen bezala, ikusten dute, bai, baina ohartzen ez; entzuten dute, bai, baina ulertzen ez; horrela, ez dira Jaunarengana bihurtzen eta ez zaie barkatzen.

John 12:39,40 Isaiasek berak esan zuen zergatik ezin zuten sinetsi: 40 Itsutu egin ditu haien begiak, gogortu haien buru-bihotzak. Ez bezate beren begiez ikus, ezta buruaz ulertu ere, horrela niregana bihur ez daitezen eta salba ez ditzadan.

Erromatarrei 11:7,8 Zer esan nahi du horrek? Israel herriak ez zuela aurkitu bila zebilena, eta Jainkoak aukeratuek lortu dutela; gainerakoak, berriz, itsuturik gelditu dira, 8 Liburu Santuak dioen bezala: Jainkoak adimena itsutu egin zien. Begiak eman zizkien, baina ez ikusteko, belarriak ere bai, baina ez entzuteko Eta horrela gaur arte.

2 Tesalonikarrei 2:10,11 eta engainabide guztiak erabiliko ditu galbidean daudenak hondatzeko, hauek ez baitzuten salbatuko zituen egia maitatu nahi izan. 11 Horregatik, indar liluragarria bidaltzen die horiei Jainkoak, gezurrari sinets diezaioten,

Mateo 13:18-23 «Entzun ezazue, beraz, ereilearen parabolaren esanahia. 19 Erregetzaren mezua entzun bai, baina ulertzen ez duenari, gaiztoa etortzen zaio eta bihotzean erein zaiona kendu egiten dio. Hori da, mezua “bide-bazterrak” hazia bezala hartzen duena. 20 “Harri-arteak” bezala hartzen duena hauxe da: mezua entzutean, berehala pozik onartzen duena; 21 baina sustrairik gabea eta iraupen gutxikoa izanik, mezua dela-eta estuasun edo erasoaldiren bat sortu orduko, erori egiten da. 22 “Sasi-arteak” bezala hartzen duena hauxe da: mezua entzun bai, baina bizitza honetako ardurak eta diru-goseak mezua ito egiten diotena, fruiturik gabe utziz. 23 “Lur onak” bezala hartzen duena hauxe da: mezua entzun eta ulertzen duena; honek fruitua ematen du: bateko ehun edo hirurogei edo hogeita hamar».

2 Korintoarrei 3:15,16 Bai, gaurdaino, Moisesen liburuak irakurtzen dituztenean, zapi hark adimena estaltzen die israeldarrei. 16 Norbait

Jaunarengana itzultzen denean bakarrik kentzen zaio estalkia.

Isaias 30:28 leporainoko uholde oldartsua haren arnasak. Galbahean bezala astinduko ditu nazioak, muturrekoaz bezala masailetik lotuko, hondamenera eramateko.

Oseas 11:3-7 Nik erakutsi nion oinez Efraimi, besoetan eraman nuen. Hala ere, ez ziren ohartu nik nituela zaintzen. 4 Amodio-lokarriz erakartzen nituen, maitasun-loturaz. Haurtxoa musuraino jasotzen duenaren antzeko nintzen haientzat; makurtu eta jaten ematen nion. 5 Efraim Egiptora itzuliko da, Asiria izango du nagusi, ez baitu niregana itzuli nahi izan. 6 Bere hirietan ezpatak erasoko dio, babeslekuak hauts bihurtuko dizkio, beraien burutazioengatik. 7 Nire herriak ez du inola ere niregana itzuli nahi; begiak Goikoarengana jasotzen ditu, baina inork laguntzen ez.

Eginak 26:18 begiak ireki diezazkiezun eta ilunpetatik argitara eta Satanasen menpetik Jainkoarengana bihur daitezten; horrela, niregan sinetsiz, bekatuen barkamena izan eta sagaratuei dagokien ondarea eskura dezaten”.

2 Timoteori 2:24-26 Jaunaren zerbitzariak, ordea, ez du sesiotan ibili behar, baizik eta bihozbera izan guztientzat, irakasteko trebe, jasankor, 25 aurka jartzen direnak gozotasunez zentzutzen dakiena. Nork daki Jainkoak ez ote dien bihozberritzea emango, egia ezagut dezaten, 26 eta ez ote duten ihes egingo bere nahira makurtuak dituen deabruaren sareetatik?

Apokalipsia 3:17-19 Hau diozu: «Aberats naiz, oso aberats, ez dut ezeren beharrik»; eta ez dakizu gizagaixoa zarena, errukarri eta behartsua, itsu eta biluzik zaudena. 18 Aholku hau ematen dizut: eros iezadazu zeuretzat sutan garbituriko urrea, aberats zaitezten, eta soineko zuriak zeure burua janzteko, larrugorri lotsagarrian ager ez zaitezten; erosi kolirioa begietan emateko, ikus dezazun. 19 Maite ditudanei egiten diet agiraka nik eta horiek zentzarazten ditut; izan, beraz, sutsu eta aldatu jokabidez.

2 Korintoarrei 7:10 Izan ere, Jainkoaren asmoen araberako nahigabeak salbamenera garamatzan bizi-aldaketa dakar ondorio, eta horretaz damutu beharrik ez dago. Mundu honetatik datorkigun nahigabeak, berriz, heriotzara eramaten gaitu.

1 Erregeak 18:37 Erantzun iezadazu, Jauna, erantzun! Ikus dezala herri honek, Jauna, zu zarela Jainkoa, eta zuk itzularaziko diozula bihotza zeuregana».

2 Korintoarrei 4:4 sinesgabeentzat alegia; Satanasek, mundu honetako jainkoak, itsutu egin baitie adimena, Jainkoaren irudi den Kristo aintzatsuaren berri onaren argi distiratsua ikus ez dezaten.

Lukas 8:11-15 «Hona hemen, bada, parabolaren esanahia: Hazia

Jainkoaren mezua da. 12 Bide-bazterreko hazia bezalakoak, hauek dira: mezua entzuten dutenak, baina deabrua etortzen zaie eta beren bihotzetik mezua kendu egiten die, sinetsi eta salba ez daitezten. 13 Harri gaineko hazia bezalakoak, hauek dira: mezua entzutean, pozik onartzen dutenak; baina, sustrairik gabeak izanik, denboraldi batean sinesten dute, baina tentaldi-garaian huts egiten. 14 Sasi arteko hazia bezalakoak, berriz, hauek: mezua entzuten dutenak, baina bizitzako ardura, diru eta atsegin artean itota gelditzen dira eta fruitu ematera iristen ez. 15 Lur oneko hazia bezalakoak, hauek dira: mezua bihotz on eta zabalez entzunik, barruan gorde eta iraupenez fruitu ematen dutenak.

Eginak 15:11 Ez horixe! Uste dugu Jesus Jaunaren onginahiari esker salbatzen gaituela Jainkoak, bai gu eta bai jentilak».

Erromatarrei 8:13 Horrela bizitzen bazarete, hil egingo zarete; baina Espirituaren bidez giza egintza gaiztoei uko egiten badiezue, bizi egingo zarete.

**Pastor T. John Franklin
Church of Salvation, Healing, and Deliverance
COS-HAD.org**